

k e a

Testuen hautaketa: *Juanra Madariaga*
Edorta Jimenez

Sarrera: *Edorta Jimenez*

Diseinua eta maketa: *Sardina Gráfica*

Inprimatzailea: *Antza S.A.L.*

Babeslea



EIE Euskal Idazleen Elkartea
—————
—————
—————

K E A Z E T A B E S T E Z

Euskaraz eguzkiaren zikloa da eguna, uraren zikloa dateke urtea, ilargiarena hilea. Ez dakigu noizdanik diren izenok, baina, aitzinakoak direla ezin uka. Gero etorri ziren mendeak edo gizaldiak, eta milurtekoak, hots historikoak direnak. Geroagokoak dira historikoak ez direnak, hala nola argi-urteak eta beste. Azkenik, zientzialariek aspaldion unibertso ziklikoaren hipotesiaz ardi dira. Alegia, behin batean izan zela dioten Big-Bang hartatik sorturiko dena haren aurreko liparrera ez ote den itzuliko. Horixe ba. Unibertso hau berau ere ez ote den ziklikoa.

Hala Izan zein izan ez, gizabanakoak orok badu bere denbora. Horrexegatik esan ohi da “Horrenak egin du”, edo “gureak egin du”. Bigarrenak gizatalde, hizkuntza edota kultura jakin batez esan ohi da. Delako taldearen denborarenak, edo mintzairarenak, edo kulturarenak, edo kausarenak, edo halako beste edozeinen zikloa, burutzear denean. *Euskalerrriaren Yakintza* idaztean eta argitaratzean holakoren bat pentsatu izan bide zuen Resurrección María Azkuek. Gure lehengo munduarenak laster egingo du eta, goazen horren hilburukoa idaztera. Edo, hau guzti hau ezin da galtzen utzi. Heriotzaz ari garenetz?

Heriotzaren hariari oratuz Azkuek Hura eta erleen artekoaz indarrean ziren euskal ekanduak aipatu zituen. Etxekoa nagusia hilez gero heriotzaren berri lehenik eta behin erleei iragarri behar zitzairen. Nagusi berriarentzat ere ezitia eta ezkoa, edo argizaria, ekoizten segi zezaten. Ez zezaten beren zikloa eten. Ez gintzaten horiek gabe utzi.

Erleak, banan-banan, sortu, hazi eta hil egiten dira. Haatik, espezie legez ziklikoak dira. Mogelek idatzi bezala, erleek herriak osatzen dituzte. Herrigileak dira.

Jakintsuagoen datuekin bat, erleak munduan duela 120 miloi urtetik hona dira, 18.000 bat mila izanik gizakiok ezitia lapurtzen hasi genionetik. Datuekin bukatzeko, 20.000 bat mota omen dira. Azkue bizi izan zen garietan, artean ere, argia erleen ezkoari esker izaten zen etxeetan. Esango ez zitzairen ba erleei etxearen berri.

Loreen zikloari lotuak dira erleak. Halaxe oroitarazi zigun Bizenta Mogelek. “Eder ez diren loretatik ere atera ohi duen ezitia (erleak). Lauaxetak berak erlea eta mitxeleta hartu zuen nerabegaroko ankerkeria olerki bihurtzeko. “Lore gustien mosuba”, erleena, bai.

Ekai behienetako bi dira ezitia eta ezkoa. Gizakiok aitzin aitzinarik egin dugun galdera da, ez horiek, baizik eta unibertsoaren jatorrizko ekaiak ziren diren. Horren erantzun bila jardun izan dute mendez mende filosofoek eta zientzialariek, eta ez dute denek erantzun bakarra ekarri. Erantzunak ugalduz joan dira ezagutzak sakondu eta zabaldu ahala. Xabier Amurizak era bikainean eman zuen berea. “Hasieran hidrogeno izan zen”. Lekutan ziren sorrerari buruzko mitoak.

Noiz da, alabaina, hasiera? Horra denboraren gakoa, delako denbora

hasierarik gabeko denbora ez baledi bederen. Ziklikoa, edo. Eta denborarik ez, eta, kontzeptua, hitza bera, gure mundua ulertu beharraren eldarniotik sortua baledi?

T.S. Eliotek idatzi bezala, “Dembora presentea eta denbora pasatua / acaso daude biak presente biac denbora futuroan”. Lau koartetoak olerki sortatik hartu dugun Gabriel Arestik ekarri zuen euskarara, eta haren eta Joseba Sarrionandiaren eta Jon Jauristeren hiru eskutarako argitalpenetik hartua da. Ortografiaren aldetik ez eze lexikoaren aldetik ere gure klasiko lapurtarraren moldean idatzia, testuak *Axular*, Joannes Leizarraga eta besteren oihartzunak dakarzkigu, ez baitzen alferrik izan bilbotarra haien lanen aldezkaria eta zabaltzailea.

Hain zuzen ere, Pedro Agerre *Axular* haren *Guerotik* harturik ekarri dugu hona hartan irakurtzen ahal den pasarte jakin bat, zeinetan saratarrak “denbora bethi doha” idatzi zuen. Ez zen horretan lehen. Ez zertan esan hark beste klasiko lehenagokoen iturrietatik edan zuela.

“Iragana eta, eta ethorkizuna eztira gure”, kito denboraren auzietako bat. Ustez behintzat, inork *Axular* eta beste klasikoak irakurri ez balitu bezala, edo irakurrita ere haien esanak gogoan hartu izan ez balitu moduan, auziak mendez hortxe dirau eta. Azken batean halakoak bai, ziklikoak baitira. Berri jaiotzen gara, eta berriak zaharraren berririk ez. Bizitzeko bidean aurrera eginda haiekin topo egin arte behinik behin.

Euskal literatura hala edo nola, alegia, zeinek bere erara maite dugunok lehengoetako haien izkribuetara jo ohi dugu, eztiaren eta ezkoaren, hots, gozoaren eta argiaren xerka, edo lilura bila bestela. Azken batean horiexek baitira literaturaren ekaietako funtsezkoenak.

Sorreraz zein denboraz gogoeta egitetik kasik ihes egin ezinik, eta joanak joan eta etorkizuna etorkizun, gure presenteko alegiak behar ditugu gogoaren elikagai, ezinbestez. “Balía orroaka” izan zenekoa, egun ere ahoz aho kontatzen direnak eta jaio berriek laster batean adituko dutenak, Julene Azpeitiak bezalaxe. Abere legendarioa, balea. Sutondoko ipuinetako kirikinoa bezain, goitizen horixe erabiltzen zuen Ebaristo Bustinzari gorazarre eginez Andima Ibinagabeitiak idatzi zuena lekuko.

Jakina denez baleak aspaldi akabatu zituzten gure itsasoan, autoak kirikinoekin gerran ari dira errepedeetako lubakietan eta erleena, oi erleak, laster egiteko omen da.

Eta galdera da, azkena, horiek bezala gu ere betiko ostenduko ote garen, eta gure gogoetak, gure auziak, gure hizkuntzak eta mintzairak, nahiz Azkueren mundu zaharrekoak nahiz Amurizaren mundu berrikoak, ez ote duten beren azkena bihar-etzi izango.

Bitartean goza dezagun bizitza honetako eztiak, argitu dezagun gure gauak alegiazko ezkoaz. Ez baitago era egokirik ahazteko laster denok izango garena.



I . E r l e a k

I. Erleak

1 - EUSKAL ERRIAREN YAKINTZA, I (EEY. I)

(Testu egokituak)

Arrautzen defensora Jonas da, erleena Abel. “Jonasek gorde dezala” esaten da oiloek arrautza egiten dutenean. “Abelek gorde ditzala” esaten da erleengatik. Ume bateatu gabekoari ere esaten zaio «Abelek gorde dagiala».

EEY. I, 221-222. or.

Emazte berria etxe berrira sartzen denean, erleei hau esan bear zaie: «Erleak: orain errespetatu bear duzue etxeko andre berri au.» Eltzaurdia deitzen zaion etxaldean ez zuten hau egin ta erleak ihesi joan ziren.

EEY. I, 280. or.

Erleei, etxeko nagusia nahiz andrea Hilez geroz, «nagusia hil da» nahiz «etxeko andrea hil da» erraten zaie. Hori erraten ezpada, hiltzen direla uste dute.

Morgan ta Haltsun etxekoren batek ematen die beti berri hau, arrotz bat balihoa erleak jarkiko litzaizkiolako.

Hiru kaxkar emaiten zaio kofoinean eta erran «etxeko andrea hil duk».

I. Erleak

Gorozikan (Bizkaia), etxe bateko norbait hiltzen denean, ugazaba ez ugazabandrea izan ez arren, auzoko nahiz adiskideren bati esaten diete «erleen beharra egizu» Honek, erleengana joan eta isiltxorik, erlategi-estalkia kenduta «Urlia hil da» esaten du. Bederatziurren osoan egoten da zabalik erlategia. Lehengo mandataria bera joaten da gero estalkia ezartzera. Batzuk hiletantzeko zerbait ipinten dute erlategi-ondoan. B) Baita Alemaniako alde askotan bere erleei txeratsu iragarri oi diete euren jabearen «erleen aitaren» heriotza.

Westfalian erleen jabe berriak hitz hauek esaten dizkie:

Den Bienen insbesondere wird der Tod des Besetzters «des Bienenvaters» alsbald in aufmerksamer Freudigkeit mitgeteilt. (Sartori, II-132.)

Baita Alemaniako alde askotan ere erleai txeratsu iragarri ohi diete euren jabearen «erleen aitaren» heriotza.

EEY. I, 430. or.

I. Erleak

2 - ABADEA

Esan nizuen itaunduko ez nizuela gehiago; baina dakorkit gogora erlea, eta jakin gura nuke, zer esan gura duen izen honek, edo zegaitik imini zaion izen hau hegazitxu behargin honi.

PERU: Erleak esan gura du (h)*errillia*, edo osoago, (h)*errigillia*. Eta bene benetan erleek egiten dute (h)erri bat. Zenbat etxetxo ederto eginak? Han bertan daukate behar eginda, jateko behar dutena. Daukate beren buru edo agintaria. Alferrak, zelangoak dirian kuruminoak, botatzen dituzte etxetik, eta zenbat gauza miragarri irakurtzen dira, diotenez, erle beharginek etxe barruan egiten dituzten gauzeen ganean!

Peru Abarka (1881ean argitaratua; 1802a aldera idatzia)

(Juan Antonio Moguel, 1745-1804)


*I. Erleak**3 - Ipuin onak (1804)*

Umeago nintzenez berriz enzun ohi nituen, zoro zororik, eta pozez erotuta, atso ipuinak. Sinisten nituen egia handi batzuek bezala, Peru, eta Mariaren ipui farregarri, eta sustrai gabeak: entzunak entzunda ere, aspertu ezin nintzen; eta, bakerik ematen ez nien atso gaixoei berriz eta berriz esateko halako ipuinak. Hau da haur guzien gaitza, edo zorasuna. Orain bada, ondorik, ta ondorengo onik ez zekarten ipuin eroak hanbait atsegin ematen bazidaten, nere adinaren argiabarretan sartu baino lehenago, zenbat eztituko ez zen nere bihotza irakurri nituenean gerora ipuin onak? Lehenengoan enzutuen nituen algaraz, eta pozez Azeriaren asmo, gaiztakeria, eta askojakinak; bere berriketa, eta jardunak. Baina azkenean irakurririk ipuinaren aterakizun, eta ondoren ederra, eta nekusanean, oskol, edo azal zatarra hatuserik, barruan zegoen mami gozoa, oroitzen nintzen erle dontsuaz; zeinak lora, eder ez direnetatik ere, atera ohi duen ezitia, eta egin gero erlauntzean abaraska, edo abao haurtxoen ezipainak gozatzten dituztenak.

Ipuin onak (1804)

Bizenta Mogel (1782-1854)

Argiabar: ilunabar, arginabar.



II . E k a i a k

II. Ekaiak

1 - HIDROGENOA

Hasieran hidrogenoa zen
eta hasiera hidrogenoa zen
eta hidrogenoak ez zuen hasierarik
Dena zen hidrogenoa
eta hidrogenoak egin zuen dena
eta hidrogeno gabe ez zen ezer egingo
Berarengan zegoen bizia
eta biziak gizona zekarkeen
eta gizonetik hidrogenoa zihoakeen
Bazen laino harrigarri bat
noiz-nonik gabea
hartaz kanpo ez zegoena
ez denborarik ez lekurik
Laino hura ari zen ari
ez inondik inorantz
barrutik barrurantz baizik
ari ahala bilduz
bildu ahala desbilduz
lehen-azkenik gabeko abiadan
Hidrogenoak umeak egin zituen
eta umeek bir-umeak
baina elementuei ez zaie gustatzen
hidrogeno kumeak deitzerik
hain desberdinak izanik
ahazturik baitaude jatorriaz.
Nork jakin ordea
zer den berdina
zer desberdina
materiaren golkoan?
Eta hauk atomoak ziren
eta atomoa hastapena baizik ez omen

II. Ekaiak

eta atomotik atomora
lizarrak bizarretan haina mende egon
eta baina iso!
zertarako mintzatu denbora lekuez
ez baita irudimenik hemen
ez inoiz ez inora heltzen?
Eta materiari izena jarri zioten
eta izpiritua deitu zioten
baina inork ez daki zer den
hartaz eginik egon arren
nahiz eta harengan
gauden eta garen
Izena da guttiena
izana axola zait izana
izana eta izanena
eta ez dezala izenak
estal izanik
Gure adimendua da zulo bat
lurraren golkotik gora
mehe mehea
luze luzea
argi izpi zulatua
zuloa dela juxtuan igartzekoa Baina iso baina egon
zabalduko du zuloa mendeen daratuluak heriotzaren
presioak
eta zuloak materia osoa perfora dezanean
eta materia osoa zulotik pasa dadinean izena eta izana bat
bera izanik hidrogenoak ez du beharko izenik.

Hidrogeno ahalguztiduna (*Menditik mundura*, 1977)
Xabier Amuriza, 1977.

II. Ekaia k

2 - DENBORA(K)

102 Erran beza Aristotelek nahi duena denboraz («Tempus est numerus motus, secundum prius et posterius». Arist. 4 Physic.). Baiña gure kontuko, denbora da lehen, orai eta gero, gauzeen ibiltzea, iragaitea eta iragaitearekin batean hingatzea eta akhabatzea. Denbora bethi doha. Neque quod futurum est meum neque quod fuit, dio Senekak (Senec. lib. 6 Natur. quaest.). Iragana, eta ethorkizuna eztira gure. Ioana ioan, ethorkizuna ethorkizun, presentekoa da gure, eta ez bertzerik. Eta presenteko haur, hain da guti ezen erraiten baitu San Tomasek: De tempore nihil est accipere in actu, nisi nunc (S. Thom. 1 p. q. 66 art. ad 4 et 5). Denboratik eztugu deus ere, orai bat baizen, iraute aphurra, pontutsu bat, eta ez gehiago. Egia da ordea, nola pontutsu hunek, orai hunek iuntatzen eta iosten bezala baititu elkharrekin iragana eta ethorkizuna, ioste hunek orhoitzen gaitu iraganaz

II. Ekaiak

eta ethorkizunaz ere esperantza emaiten. Eta halatan orhoitze hunekin, eta esperantza hunekin batean, iragana, eta ethorkizuna presentekoarekin lothurik, eta bat eginik, etzaiku presentekoa hain labur iduritzen. Zeren guztiak elkharrekin bezala, eta bat baillira bezala hartzen baititugu. Hala erraiten du Senekak: Longam illi facit vitam, omnium temporum in unum collatio (Senec. de brevitae vitae. cap. 13). Ordea den bezala, eta behar den bezala denboraren hartzera, edirenen dugu, deus guti dela, mehar dela eta labur. Presentekoa goza dezakegu, ethorkizunekoa desira, eta iragana lauda edo auhen eta deithora. Iraganak ezte erremediorik, hura ioan da: ethorkizunekoa eztakigu emanen zaikunz: presentekoa hain da guti, labur eta ez deus, ezen orai ere, bigarren hitza hasi dudaneko, iragan baitateke lehenbizikoa, eta lehenbizikoaren denbora

Gero (1645)

Pedro Agerre *Axular* (1546-1664)

II. Ekaiak

- 3 - Dembora presentea eta dembora pasatua
 Acaso daude presente biac dembora futuroan,
 Eta dembora futuraa contenituric dembora pasatuan.
 Dembora guztia presente baldin badago eternalqui
 Irredimible da dembora guztia.
 Guertha ahal ičan cena abstractione bat da,
 Bakarric speculationezco mundu batetan
 Possibilitate perpetual baten ancean dirauena.
 Guertha ahal ičan cenac eta guerthatu cenac
 Bethi presente dagoen fin batetara desarratzen dute.
 Urrhatsec echo eguiten dute memorian
 Hartu ezquenuen passagean
 Inoiz çabaldu ezquenuen atherat
 Rosa-jardinean. Ene Hitzec horrela dute
 Eguiten echo çure memorian.
 Baina zer asmorequin,
 Rosa-hostoz bethericaco erratheluan hautsa harrotzen
 Dutela, eztaquit nic.
 Beste echo batzuec
 Habitatzen dute jardina. Seguituco dugua?
 Arhin, erran çuen çoriac, bilha itçazue, bilha itçaçue
 Bazter haretan. Lehen athearen ondoan,
 Gueure lehen munduan, seguituco dugua
 çoçoaren deceptionea? Gueure lehen munduan.
 Han ceuden, dignificaturic, invisible,
 Lehiaric gabe movitzen cirela, orbelen gainetic,
 Autumnoco çargorrian, aire vibrantetic,

II. E k a i a k

Eta lahar-artean ezcutaturicaco musica ençun-gabeari
 Arrapostan, çoriac deithu eguin çuen,
 Eta begui-colpe ikusi-gabeac gurutzatu çuen, ceren
 Rosec behatuac diren floreen beth-ikertzea baitzuten.
 Bertan ceuden, guc ostaticu, acceptatu eta acceptari.
 Hala movitzen guinen, haec eta gu, manera formal batetan
 Çumardi hutsetic, ezpeletaco circulat,

Butzu lehiortura beguiratzera.
 Leihorric butzua, cimendu leihorra, ertz ilhunac,
 Eta butzua eguzqui-arguiticaco urez betheric cegoen,
 Eta lotosa igaten cen, gueldi, gueldi,
 Arguiaren bihotzaz dirdiraten cen açala,
 Eta haec gure atzean ceuden, butzuan reflectaturic.
 Guero hodei bat iragan cen, eta butzua hutsic cegoen.
 Çoaz, erran çuen çoriac, ceren rosac hurrez betheric baitzeuden,
 Excitatuqui ezcutuca, barrea gordeca.
 Çoaz, çoaz, çoaz, erran çuen çoriac, genero humanoac
 Ecin supporta deçaque realitate handiric.
 Dembora passatuac eta dembora futuroac,
 Guertha ahal içan cenac eta guerthatu cenac
 Bethi presente dagoen fin batetara desarratzen dute.

Lehena: Burnt Norton (*Lau koartetoak*, 1973)

Eliot, Thomas Stearns (1888-1965).

Itzulpena, Gabriel Aresti, Joseba Sarrionandia, Jon Juaristi.



III. Alegiak

III. Alegiak

1 - BALIA ORROAKA

Balia da itxasoan bizi dan abere aundi bat. Itxasoan bizi diranetan aundiena. Itxasoan bizi izanarren ez da arraiña, ur azpian arnasik eziñ artu izaten du, eta umeak titiakiñ azitzen ditu.

Baña, zertan ari niz ni gauza abek esaten, neri irakurtzen didatenak gauza abek, nik beziñ ondo dazkite ta?

Euskaldun arrantzaleak bale arrapatzalle bikañak izan dira. Au ere bai dakizute. Eta baita ere, Getari, Zarautz, Orio eta beste erri batzuek, euren eskudoetan balearrapatzalleak dituztela.

Oraiñ berreun urte inguru zumayar arrantzale batzuek Sokoia aldean bale aundi bat ikusi zuten. Denbora ayetan baliak sarri etortzen ziran gure itxasora. (Gure itxaso deitzen diot, euskalduna naizalako, Kantauri itxasoari). Neu umea nintzanean ere oriotarrak arrapatu zuten bat.

Balia bere umeakiñ zan, eta zumayarrak arpoiaz jo arren eziñ izan zuten arrapatu. Baña bai umea; eta Zumaya'ra ekarri. Balerik ez zuten geyago ikusi; Bayona'rantz egin zuan eta ezin jarraitu izan zioten.

III. Alegiak

Baña urrengo egunean Zumaya'ko barran agertu zan balia orroa baten (nik ez dakit baliak orroarik egiñ lezakean, baña nere aitonak ala esan oi zuan, bere aitari entzunda). Bere umien ondoren etorri zan nonbait, eta bere umea eskatzen zuan. Zumaya'ko arrantzaleak ez ziran ausartu bale ura arraparzen. Ez eta beste portu auzoetakoak ere. Nor urreratu abere aiñ aundi ta aserratuengana?

Zortzi egunean egon zan Zumaya'ko barran, bere umeari deadarka, eta zumayar arrantzaleak itxasora erden eziñik, egualdi ederra egoan-arren. Bederatzigarren egunean, baleak etzi zuan nonbait, eta Iparraldera egin zuan.

Orduantxe artu zuten arnasa zumayarrak eta arrantzara erden zuten. Aberea izanarren, baliak ere bere umeak maite.

III. Alegiak

JULENE AZPEITIA

2 - **KIRIKIÑO**K erabilitako idazkeraren eredu lez,
erderaz ta euzkeraz esakura banak

Bakizue euzkerazko «kirikiño» itzak aberetxu bat adirazten dauala, erderaz «erizo» deitzen yakona.

Erdeldunak esaten dabe sarri: «Eso es un erizo» (kirikiño bat da ori) izakera asarrekorra dauan notiña adirazteko; «se ha puesto hecho un erizo» (kirikiño bat einda parau da) asarre yarri dala iragarteko.

Erdeldunen esakera orreek sortu dira kirikiñuak bizkarraldian ule ordez eztaka gogorrek ugari dauzalako, azal oso lakarra daulako. Lakartasun orixe da erdeldunak kirikiñuagan beñen ikusten dabena.

Euzkeldunak, ostera, eztabe iñoz esaten «ori kirikiño bat da» notin lakarra, asarrekorra, «jeniño» txarrekua adirazteko; esakera orregaz adirazten dabe eskutuka, atzeka, ixilka dabillen notiña. Kirikiñua da aberetxu bat, beti sasipietan eskutauta bizi dana; iñor , sumetan

III. Alegiak

eztauanian, bakartasuna dagola uste dauanian, orduantxe urteten da sasipetik munitara kokotxuak arrapetan, koko-yalia da, ba, askok uste ezarren, eta olgetan, oso olgetariya da, ba, pizti txiki au. Eta iñoz ustez-uste barik notiñen aurrian aurkitzen ba'da, beriala biribiltzen da, kirimiltzen da, arpegiya ondo gordeta.

Ortik dator, euzkeldunak izen ori ezartia lotsorrari, bildurtiyari, iñoren aurrian agertzeko lotsa dan eta atzeraka, eskutuka ibiltan danari.

Beraz, notiñai ezarrita, esakura bana dabe «erizo»-k eta «kirikiño»-k, arek asarrekorra, onek lotsorra.

Kirikiñuak bere sasipetik eztau urten gura izaten ezetara be; jente askoren artian lotsaz kirikilduten da, iñok arpegirik ikusi eztagiyon. Ondo egiten dau, ezaña, motza, itxusiya dalako.

III. Alegiak

3- MUTILTXUBA TA ERLIA

Mitxeleta bat eta erlia
egaizka lili-artian
mutiltxu batek ikusi euzan
baratz alaiko bakian.

Mitxeletaren margo politak
zoratu eben mutilla.
Lorarik lora arin ebillan
margo eder areik billa.

Erle maratzak ots-egin eutsan:
—«Ez adi joan iñora.
Mitxeletan autsa dok soilki,
Ator, bai, neure ondora.

«Ezti gozua emen yaukuat
lore gustijen mosuba».
Baña mutillak apurtu eutsan
ezti-beraska txautuba.

III. Alegiak


Onez ganera atrapau eban
mitxeletatxu liraña.
Laskitu eban bere oñakaz
loratza oso bikaña.


Ordun erleak, erletxu onak
sartu eutson, bai, eztena.
—«Eskar txarreko mutil gaiztua,
eu azan lukur-zekena».

* * *

Muiltxu onen antzeko asko
ba-dira gure artian.
Baña txarraren azkena, laster,
elduten yake ludijan.

LAUAXETA









Babeslea



EIE Euskal Idazleen Elkartea
